

LAZARRAGAREN LEXIKO ETA GRAMATIKA ZEHETASUNEZ

Adolfo AREJITA

0. AURKEZPENA

Ondoko lan labur honetan Lazarragaren izkribuko hizkeraren puntu batzuk hautatu ditut aztergai, gramatikari doazkion alderditik, zabalean barik sakonean ikertu nahiz, asmoz behintzat. Gramatika historikoa dudanez neure irakasgai oinarrizkoetarikoa, pentsatu dut eraz datorkeela idazle honen garaian eta eremuan kokatzea gramatika-egitura jakin batzuk, konparantzak eginez, bai aldi beretsuko beste izkribuetako erabilerekin, bai ekialdeko, bai sartaldekoekin, baina baita denboran hurbilagoekin, batez ere bizkaiera zahar eta klasikoko ereduekin eta, denboran jauzi handi bat eginez, gaur egun ere bizirik dirauten egitura zaharzale batzuekin.

Perpau bakuneko kategoria jakin batzuetara mugatu dut ezin bestean neure eginkizuna: izen sintagmaren esparrutik irten barik, pertsona-izenordainak eta hauen posesiboak, mugatzaile-erakusleak, zenbatzaile batzuk eta graduazio-marka batzuk hautatu ditut ikergai eta aztergai.

Izkribuko testu-aipua gaurko grafian eskaini ditut. Horretarako neure transkripzioa erabili dut oinarriztat, baina Armiarma-k sarean duena ere aurrean dudala. Orrialdeak, sarean dauden bertsioren zenbaki sistema berarekin aipatu ditut.

Jakitun nago bestetik, hemen jorratzen diren puntu berberak edo beretsuak aipatu edo komentatu izan dituela zuzen edo zeharka bestek ere, izkribua ezagun egin denik honunzkoan. Hala J. A. Lakarrak (2004), X. Kintanak (2004 eta 2005), Pruden Garciak edo R. M. Pagolak (2006), besteak beste.

1. PERTSONA IZENORDAINEZ

Guztien morfologia edo sintaxi ezaugarrietara barik, berezi antzeko diren formetara mugatuko dut neure azalpena.

1.1. Forma neutroak

– *guek* pluralekoaz lehen aipua. Obran, *gu* forma arruntarekin batera argiro lekukotua dago *guek* forma zaharra, kasu absolutibo eta ergatiborako. Donemiliagako glosa euskarazkoetariko batean ageri den berbera da, baina sei mende geroago. Horrek darakus, sartaldeko hizkeretan eta ziurtasun gehiagoz goi lautadan, lehengo aldietan gutxi-asko hedaturik egon zela, ez dakigu garbi noiz arte. Mikoleta bilbotarrak ere bere gramatikatxoan (1653) badarabil noiz edo noiz, gehienetan *gu* idatzi arren. Lazarraga dugu, beraz, euskara zaharrean eta diskurtsoan txertaturik aldaera hau garbiroen darabilena. Guganatu den testuan lau aldiz ageri da. Horrek beste barik esan nahi du forma ohikoa zela idazlearen hizkeran.

Balio plurala du beti, *gu* zaharragoak duen bezalaxe; inolaz ere ez maiestatikoa ohi deritzana. Adibideetariko baten *zuek* eta *guek* aurrez aur ditugu (b).

(a) “ik jakingo dok eze *guek* goazela Dueroko riberara” (10r), “goazen guztiok batera eze *guek* al daigun lagundasunik onaena egingo deutsugu” (10v), “oi nox zenbilzen / orrinbat gatxez munduan; / eldu ez zara / *guek* gueonzen lekuan” (45r).

(b) “edo bestela *guek* eta *zuek* bearko dogu jente krueloen eskue-tati eriotzea gustadu” (14v).

Esan bezala, *gu* itxura ere badarabil, eta izenordaina deklinatzean *gu-* oinaren gainean jokatzen du beti: *guk*, *guri*, *gugaz*, *gugaiti*. Ondoko bertso-ahapaldian hiru aldiz jarraian darabil, zeinetan neurriari ere jaramon behar dion:

"Ozaetako bandereagaz / oi ta *gu* gara etorri / iguzkiaren aldean dago / gure onrrea jarririk; / geure atzean *guk* darabilgu / mundua katigaturik. / Goitixego ekusi neben / beste alderutz eguinik / donzella flordelisarik asko / guztiak gorritz janzirik. / Gaztelu Gebarakoan gara / *gu* bizi defendidurik" (15r).

– *ni* izenordainaren deklinieran aipagarri dira berariaz *en-* erro zaharraz eraikitako formak, sartalde euskaran mehatz azaltzen direnak, nahiz beranduagoko testuetan ere behin edo behin lekukotzen diren¹ eta Oinatiko aldeko

¹ Cf. Mikoleta: "enessat oneyc dirá egunac beardogusanac esean sartu" (13).

hizkeran ahoz ere bai.² Berez *en-* oinaren edota *ene* posesiboaren gainean eraikiak dira, gutxienez ondokook: soz. *enegaz* (32r), benef. *enetako*, *enetzat*, mot. *enegaiti* (a). Toki-denbora kasuetan, ostera, *ni-* oinaz eraikiak dira *nigana* eredu ohikoak (b); postposizioa absolutiboaren gainean eraikia den seinale. Benefaktiborako dugun *enetako* / *zuretako* segidak garbiro islatzen du - (*r*)*etako* atzizki aldaera, gaur egun oraindino, ekialde-euskalkietan ez eze, bizkaiera ekialdekoan ere bizi dena (c):

(a) “Nunberegaita asko dago / *enetako* dolorerik” (36r), “uste gutxienez dozun orduan *enegaz* bearko dozu” (17r), “ark *enegaiti*, oi, oraingaño eztau edugi ansirik” (27v), “*Enetzat* faltadu zan kontentua” (39r).

(b) “*nigana* gia eztezazula / sekula zeure barkea” (15vbis).

(c) “ala *zuretako* nola *enetako*” (11v).

– Pertsona-izenordainok sozietiboan, motibatiboan eta *-ga-* artizkidun osteango kasuetan deklinatzeko duten modua ere aipagarri da, zeren ez baitator beti bat sartalde euskaran nagusi den ereduarekin. Batetik *nigaz* (9r, 11v), *zugaz*, *zugana*, *zugaiti*, *zuegaz*, *zuegaiti* erakoak darabiltza ugari (a), baina horien ondoan *zure* posesiboaz eraikiriko *zuregaz*, *zuretzat*, *zuregaiti*, *zuregan*, *zuregana* ereduak ere ezagunak ditu, haiek bezain ugariak ez badira ere (b).

Forma bihurkarien sailean ere berdin: *neurgaz* formaren ondoan *neuregaz* ere bada, hau da, *-re-* genitibo-atzizkia tartean duela; edo nahi bada, *neure-*, *zeure-* posesiboen gainean eraikirik. Jokabide bikoitz berbera dugu erakusleekin ere: (*h*)*aregaz* ezaguna du, baina (*h*)*agaz* (15v) ere badarabil, bizkaiera zaharraren bidetik. Eredu bien kontrastea ageri-agerikoa da pasarte batzuetan: *nigaz* / *zuregaz* bertso berean darabiltza inoiz (c):

(a) “Zuk barriz *nigaz* ez daukazu / bapere memoriarik” (30r), “Bestela bere *nigan* ez dago / zurea ez dan gauzarik” (30r), “*zugaz* amarduagaiti” (30r), “*zugaiti* kruel dala beregana” (39v), “*Zugana* deudan amorioak / oi, iñon ez dau kaburik” (30r), “*Zuegaz*, barriz, ez eukaen, / oi ta, bapere konturik” (24r), “Au *zuegaiti* egiterako, / asko da errazoarik” (24v), “*Agaz* osatu lekidizu” (15v).

“*Neurgaz* sekula giten ez dot” (30r).

(b) “*zegaiti* nabon *zuregaz* batu” (19v), “*Neuregaz* neben libertadea” (27r), “Ditxoso *zuregaiti* ilten dana” (39v).

(c) “zu *nigaz* konfesadu, ni *zuregaz*” (32v).

² Cf. OEH (VI, 657): “Enekiñ etorri (Araotzen zaarrak oraindino)” Kandido Izagirre; Voc. Aranzazu-Oñate.

Bide beretik, toki-denbora kasuetan *-regan* eredia ere badarabil, 2gn pertsonan zehazki: *zuregan* (39v), *zuregana* (39v), *zureganik*, ziurrenik bertsoen neurriagatik komeni izan zaiolako (b). Baina ugariak dira ere bizkaiera tradiziokoak: *nigan*, *zuga* (22v), *nigana* (3v, 12r), *niganik* (23v) eredukoak (a):

(a) “*nigana* manso dakarkezula” (30v), “jakin egizu *niganik*” (47v), “Au egitea *zuga* asko da” (41r), “*Zuga* ereingo dan / ene azia” (22v), “presentetxoau / artu egizu *niganik*” (23v).

(b) “pensamentuau daukadala / *zuregan* enklabadurik” (30r), “Libertadeau joan jatan *zuregana*” (31v), “nik merezidu ez dot *zureganik*” (32r).

- Pertsona-izenordainok bizidunak eta gizaki-eremukoak izanik, toki-denbora kasuak *-ga-* artizkiak eraiki ohi dituzte, ez ekialdeko tradizioan, baina bai nagusiro erdi eta sartaldekoetan. Hala ere, ekialdearekin uztardura eginik, *-ta-* hizkidun formak ere ezagunak ditu idazleonek bere hizkeran. Hala darabiltza, kasurako, *zuetan* eta *zuetara*, biak pluralak. Bide batez gogorra dezagun gaur egungo bizkai euskararen ere badirela horietarikoak, *nitara*, *zutara*, *gutara*, *zuetara* erakoak, balio semantiko mugatuaz bada ere³:

“*zuetan* miiu ifinterako, / banago lotsaz beterik” (23v), *zuetara* joan joazen orduan (45v).

- Izenordaina foku izanak ez daroa berekin izenordain bihurkariaren presentzia; forma neutroak dirau halakoetan. Ondoko hau dugu ingurune argia, non *zuk* eta *nik* aurrez aurre jartzen dituen, 2gn pertsona hanpatuz: “*zuk* legez ditut nik naruru zuriak” (33r).

1.2. Forma bihurkariak: *neur-*, *neurau*; *eur*; *geu*; *zeur-*, *zeurori* izenordain ereduak.

- Sartalde euskara guztian, testu honexetakoak dukegu *-r* amaieradun aldaeren lekukotasun bakanetarikoa, oker handi barik. Izkribuan *neur*, *eur*, *zeur*, *geur* ereduko itxurak ageri dira, sartaldean gerora nagusitu diren *-r* bakoien lekuan; ekialde tradizioko Axularren *neurk* erakoetatik hurbilago daudenak sartaldeko edota erdialdeko forma nagusietatik baino. Bizkaian euskararen sartalderengo mugan dagoen Nerbioi aldean dirauen *zeurok* izenordain-itxuraz aparte, Lazarragarenean dakusagun *zeure* legezko posesiboetan ez bada,

³ Gernika aldean neuk jende zaharrari entzunak dira, senide barrukoen antzak adierazteko kontestuan: *Notara emon dau? -Nitara ez behintzat... Zutara emongo eban!* Ezagunak dira guztiz, bestalde, honako esamoduok: *zuek zuetara*, *guk gutara*, etb.

-r horren arrastorik ez dugu, ez Bizkai, ez sartalde osoko euskaran. Hizkuntzaren historiaren aldetik horretan datza, besteak bestek, Lazarragaren erabileron garrantzia.

Horren gainean eraikiak dira *neurau*, *zeurori* eta *geurtxeok* erako egitura konplexuak, ekialde tradizio zaharrea ditugun *neuror/neror*, *zeurori/zerori*, *geurok/gerok* eredu-koetatik hurbil daudenak. Baina mugatzaile hurbil bikoizta ageri dute Lazarragaren formek singularrean, gerora ere gordeko den bikoiztasuna: *-au*, *-ori* atzizkietan mamitua. Erdialdeko hizkeretan ere partiketa bera dugu funtsean: *nerau*, *zerori*. Ekialdeko forma klasikoetan, aldiz, *-or/-ori* dugu atzizki bakarra, salbu *nibaur* erudian.

Izenordainotan, mugatzaile hurbilen partiketa honetara eginik dugu beraz: sing.ean lehen gradurako *-au*, beti *neur-* lehen pertsonaren gainean eraikia; bigarrenarako *-ori*, *zeur-* bigarren pertsonakoaren gainean eraikia, eta pluralerako *-ok* bakarra, pertsona bietarako. Hala eraikiak dira testuko *neurau*, *zeurori* eta *geur-txe-ok*.

- Egitura konposatutun bihurkari horiek aposizioan erabilirik ageri dira maiz, modu nabarian gainera; hau da, izenordain beraren forma neutroaren ondoan; gehienetan hau aurretik dela; ez beti, hala ere. Gaur egun ere indarrean eta bizi-bizi dirauen sistema, *ni neu*, *zu zeu*, *gu geu* erako segidak aurkari-tza kontestuetan.

Izenordain biok jarrai-jarraian daude batzuetan eta ohiko ordenan: neutroa aurretik eta markatua ondoren dela (a); hala ere, ordena iruntzitakoa dutenak ere badira (b), eta inoiz bata eta bestea urrunduago kokaturik ere ageri dira (c):

(a) “*ni neurau* nago / galanto informadurik” (41v), “Begiratu baga zuk ni nor naxan, / salbo *zu zeurori* nungo zarean” (13v).

(b) “*neurau ni* ezkonduko nax sarri” (36r).

(c) “*zuk* banozu sentietan / sentitzen zaitut bai *zeurori* bere” (32v).

Bestalde, errepika egitura agerikorik egon ez arren ere, bihurkaritasun kontestuan darabiltza beti-beti forma markatuok:

“aldi bat leku sekreto baten / *neuroni* zidan agindu” (25v).

– Banaka emanik, izenordainak ondoko kasuotan ageri dira:

- Lehen gradurako eredu bietako forma bihurkariak ditugu, *neur* eta *neurau* erakoak. Kasu oinarrizkoen formak hauek dira: abs. *neurau* eta honen ald. indartua, *neurtxeau* –*neur* ez dugu lekukotu–; erg. *neurk* eta *neuronek*; dat. *neuri* eta *neuroni*. Aldiz, *neur-* oinaren edota *neure* genitibo zaharraren gainean eraikiak dira besteok: dest. *neuretako*, soz. *neuregaz* eta in. *neuregan*. Azken kasu honetarako *neugaz* itxura da sartalde euskaran nagusiki erabilia.

(a) “jauna, zaoza geldirik, / basoan *neurau* bakarrik nago” (21r), “Oi ta, bildurrak ikara nabil, / ez dakit *neurau* nor naxan” (23r).

(b) “Esan badagizu ezta faltako; / *neurk* jakin ez arren, badogu diru / juglare pare bat nogaz konplidu” (14v), “*neurk* ekusirik nola zarean / neskea, bildurrago nax” (23r), “ene laztanak gurarik eta / *neurk* ala trabajadurik” (27r), “Ene bearra da, ezta zurea, / *neurk* konfesatzen dot au a la clara” (39v); “eze an gura dot *neuronek* emun zuk agindu deustazun sobrea” (3r).

(c) “(...) ene semea / *neuri* bano oba deretxudana” (14r), “Aldi bat leku sekreto baten / *neuroni* zidan agindu” (25v).

(d) “zorigatxean oi *neuretako* / amorea dot ezautu” (11r), “*Neuregaz* neben libertadea / eroan zidan berekin” (27r), “zerbait litzana *neuregan* rezeladurik” (45r).

- Bigarren graduan, hitanoz diharduenean *eur-* dugu: erg. *eurk*:

“Igo egin laster, eze / *eurk* dakusken erietan” (43r).

Bigarren graduan, zuka neutroaz ari denean, forma indartu bietarikoak darabiltza: abs. *zeur* ere bai, baina batez ere *zeurori*; ergatiboan *zeurk* eta *zeurrorrek*; benef. *zeuretzat*. Osterantzeko kasuetan, adl. *zeurgana*; abl. *zeurganik*, biak *zeur-* oinaren gainean:

(a) “zure lekuan ederra nor dan / *zeur* ezpazara ez dakit” (41v), “Doristeo, zegaiti zoaz *zeurori*, bada, galdurik” (11v), “Neure begiok goratu neben; / ez neben pensamenturik, / dama galanta, an zeonzela / oi ta, *zeurori* bakarrik” (20v).

(b) “Zegaiti dakizun *zeurk* ekusita / ez naxana min baga kexaetan” (14v), “*Zeurrorrek* emun dozun gero / kausa orejinalea, / remediotzat ar ezazu / *zeurrorrek* sufrietea” (15v), “Oi aserratu deraustazu, (...) / *zeurrorrek* ala gurarik” (47r).

(c) “Kundizio kurelok, nai bekizu / *zeurganik* kenzaitea” (32v), “zeure bularrok jan dagizula / *zeurgana* sartu artean” (30v).

- Lehen gradu pluralean darabiltzan formak, absolutiboan *geur* eta *geurtxeok*; bigarren hau *geurok* formari barruan *-xe-* erantsirik.

“Erabilten gaitu ilabetean / bere tripearenzat errastruan; / *geur* barriz tiri taio konbentuan” (28v), “ene laztana solas daigun / *geurtxeok* biok bakarrik” (21r).

- Bigarren gradu pluralerako, *zeurok* eredia dugu; gorago esan bezala, Orozko, Zeberio eta Nerbioi goienean oraindino bizirik dirauen forma zaharra, funtsean *zeur* + *-ok* osagaiez eraikia. Bizkaiera klasikoan ere, sartaldeko

autoreetan (Añibarro, J. M. Zabala) ondo oinarriturik daude eredu honetako formak.⁴ Beheratxoago dakusagunez, genitibo posesiboa *-en* markaz eraikitzen du, *-on* hurbilaz barik, ditugun datuen arabera behintzat:

“zeruko jaunak, oi, ez liela / amoreokin ditxarik;/ zerren da *zeurok* serbietako / ez daben konstanziarik ” (24r).

- Hirugarren pertsonarako gradu neutroan *bera* dugu singularrean (a), batzuetan aposizio egituran erabilia: *agaz beragaz* eta *jaun zerukoak bertxeak* (b), bigarren hau *-txe-* graduatze-hizkia barruan duela.

Gradu hurbileko formak, *berau* eta *berori* ere badarabiltza. *Berau* eta honen erg. *beronek* lekukotuak dira behin edo behin (c). Eta *berori* 2. gradu-koa, erabili badarabil, baina ez 3. pertsonarako, 2.eko goi tratamendurako baino: *berorika* diharduela, behin gutxienez, *berorren* forma (d):

(a) “Oi, orain barriz nik ifini dot / *bera* kateaz loturik” (27v), “zegaiti *bera* ezta etzingo / oean zabal zabalik” (28v).

(b) “Nik laztan bazaitut, *agaz beragaz* / pagatu bearko dozu zeure zorra” (39v), “Oi, arrezkero *Jaun zerukoak / bertxeak* daki bakarrik, / Katelinatxo, nola nagoan” (20v), “eroan even / *Kristo bera* loturik” (46v).

(c) “ene zaldiau dabilela / *berau* pilotu, *berau* bela, / jan baga fatigadurik” (46v), “Encantadora Medeak baiño denpora baten Jasoni *beronek* bere ezteidio falta geiago damari” (46v).

(d) “*berorren* serbitzaria nax ta, / ez niri barriz burlarik” (41v).

Toki-denbora kasuetan, adberbioetan diren berberak baino ez ditugu idoro: *bertan*, *bertati* ereduak, beheratxoago azalduak.

- Hirugarren pertsona pluraleko mugatzaile biekiko formak dira: *eurak* eta *eurok*, generikoa eta hurbila, nahiz bata eta bestea bakan erabiliak diren:

(a) “*Eurak* biak oi ebiltzen / bapere baga lagunik” (25r), “*eurak* dakie kuraetan / min oria ta gorria” (44v).

(b) “bobodaxeok / itxi dau *eurok* bakarrik” (48v).

- Erakusle bihurkariaren paradigma berekoak dira zenbait adberbio bihurkari ere, *ber-* + *-tan* / *-tati* / *-tara* / *-tako* taiukoak. Izkribuan ageri direnak, ines. *bertan* eta abl. *bertati*, *bertarean* dira. *Bertati* eta *bertarean* denborazko

⁴ Cf. J. M. Zabala: “Aushe berau esan bear deuntsuet nic bere *ceuroi* neure entzula maite-ai” (Aranz 175). Baina gaur Nerbioi-Zeberio alderdi horretan bizi den *zurok* (zuek) formaren azterrenik ez dugu tradizio zaharrean. Antz osoa du, *zeurok* bihurkariaren analogiaz beranduago sorturiko forma neutroa dela, *zuek/zuok* zaharragoen kaltetan.

aditzondo legez erabili ohi dira, bizkaiera klasikoan ere ugaria den kategoria eta balio berberaz, bat-batekotasun zentzua gordeaz:

(a) “badanik bere *bertan* eben / zerbait litzana somadu” (26r).

(b) “Sirenak bisitadu balegi, *bertati* osatuko zala” (5v), “Neure aragiok dakustanean / (...) / *ber[ta]ti* jasarte'nax eresketan” (27v), “*Bertati* dakar gizonaentzat / ardurea ta plagea” (42r).

Bihurkariok sarri ohi dutenez, apozizio funtzioan ageri dira izkribuan ere behin baino sarriago:

“*orretan bertan*, oi, bear dozu / geratu satisfetxaririk” (41r), “nun idoro eben (...) itxi eben *maneran bertan*” (1v), “puntu artarik *bertarean* / ilundu zidin zerua” (47v).

- Izenordainok direla-ta, *-txe* graduatzailearekin duten erabilera ugaria gogorarazi behar da azkenez, zeren gerora testuetan bakan baino ikusten ez den joera baita. Hala darabiltza: *neurtxeau*, *bertxea* (20r), *geurtxeok* (21r) bereziki. Atzizkiorren balioa ez da hemen gutxitzailarena, beste kategoria batzuekin ohi denez, *nor*-izatea indartzea baino, lat. *ipse* horren hurrekoa:

“Oi, bada bere bizi oi nax / (...) / zitudetxo txikir batean / *neurtxeau* bakar-bakarrik” (24r), “Guztia oiñak garbitu eusten, / *bertxek* umilladurik” (49v).

Adierazgarria da, bestalde, (*h*)*auxe*, (*h*)*axe* ereduko erakusleekiko forma indarturik ez agertzea izkribuan. Bai, ostera, erakusleotarik eratorririko aditzondoekin; hala *ebentxe*, *areantxe* erakusle-aditzondoetan gutxienez:

“Ene semea, / (...) / *ebentxe* bizi da ene laztana” (14v), “*areantxe* bat oi al badozu, / bila ze zatez besterik” (47v).

- Graduatzailaren presentzia dugu izenordainotan beste zehetasun aipagarri bat. Hara *geurtxeok* izenordainean dugun morfologia: *geur* + *-ok* izenordain konposatuorrek *-txe* hizki graduatzailea du erdian. Kategoria horretakoekin nekez gertatzen dena, bestalde; nahiz atzizki hori arrunta izan gaurdaino erakusle motako izenordain edo determinatzaileekin (*hauxe*, *horixe*, *haxe*) intentsitatea sendotzeko:

“solas daigun / *geurtxeok* biok bakarrik” (21r).

1.3. Posesiboak

– Forma neutroetan aipagarri da 1. pertsonarako darabilen *ene*, aldi zaharretan eta gutxienez XVIII. mendera arte forma orokorra euskara osoan, sar-

talde hizkeretan *nire* hedatu eta nagusitu aurretik. Testuan ugaria da eta askotariko inguruneetan erabilia. Aipatzea merezi du *ene bizia* formula barruan duen erabilerak. Hala:

“*Ene bizia*, geratu ninzan / andiro afrontadurik” (24r).

– Bihurkarietarako Lazarragak darabilen eredia, euskara zahar osoan eta gaur egun ere sartaldean dugun beretsua da: *neure*, *eure*, *geure*, *zeure* eta *zeuren/ zeuen* dira 1. eta 2. pertsonetako forma nagusiak, 3.erako sing. *bere* eta pl. *euroen / euren* ditugula. Erabilera nagusitik aldentzen diren forma biak pluraleko *zeuren* 2.koa eta *euroen* 3.koa dira. Bide batez gogora dezagun *neuronen* legezko genitiboko formak pertsona-izenordainen artean sartu ditugula, posesibotzat jo barik. Hara idoro ditugun formak:

Neure:

“*Neure* laztanaen amorearren / egin gura dot negar bat” (6v),
“zorigatxean oi *neuretako* / amorea dot ezautu” (11r).

Geure:

“*Geure* atzean guk darabilgu / mundua katigaturik” (15r).

Zeure:

“pa]pel baten *zeure* eskuz [eskrebidu] degidazula” (2v), “egun askotan bearko dozu / *zeure* aldean medikua” (6r), “*zeure* borondateori bes-tegan daukazuna legez, ezta mirakuru nigaz konturik euki eza” (11v).

Zeuren, zeuen. Bigarren forma behin darabil eta lehena, *zeur-* zaharraren gainean eraikia, birritan. Gaur ere oraindino bizkaierarik sartaldeenekoan *zeuron* hurbila indarrean da (Orozko, Zeberio eta Nerbioi aldean gutxienez).

(a) “Ez bildurrik *zeuren* biotzetan artu, artzai amoraduak” (13r),
“*zeuren* ezpataok eskuetan artuta belauriko jarri espilu onetara begira zaozela” (13v).

(b) “A gizon doloraduak eta kruelak *zeuen* bizioendako!” (14v).

Bere 3. pertsonakoak balio bakuna du beti Lazarragaren hizkeran, aniztunerako *euren* darabilen bitartean. Posesibo honek bere forma deklinatu propioak ditu zenbait kasutan; testuan ageri direnak: soz. *berekin / beregaz*, ines. *beregan*, abl. *bereganik*, adl. *beregana*, batez ere; gazt. ‘consigo’, ‘en sí’, ‘de sí’, ‘hacia | para sí’:

“artu eben *berekin* (...) arpa bat” (4v), “nola emazteagaz joan zidin jardín batera eta *beregaz* eroan eben Sirena eta Silbia bere donzeillaak” (6v), “arean da *beregan* biurtu zeitean artean” (6r), “Doristeok ekusirik zala imposible Sirena *bereganik* apartaetea” (11v), “ni legez bizi dala penaetan, (...) zugaiti kruel dala *beregana*” (39v).

Maiztasunez ageri da posesibo bihurkariau *nork bere* egitura barruan. Artean ez zuen lexikalizazio-gradurik hitz-segida honek, gaurko sartalde hizkeretan gertatu ohi denez:

“zan lastima andia *nork bere* biotzean eukan tristezea ekusten” (9r), “zeinzuk bertati *nork bere* espiluak eta ezpatak arturik, joan zirean konfusioko etsera” (13v).

Euren eta *euroen* 3. pertsona pluraleko posesiboak dira, neutroa eta hur-bila, oposizioa argiro markatzen dela. Badira beste aldaera bi ere izkribuan: bata, bitxi samarra, *eueren*, baina akatsezkoa ez dirudiena. Bestea, *euen* edo *eben* irakurri beharrekoa. Bihurkaritasun ingurunean erabiliak dira beti ere. Forma deklinatuetan *eurentzat* (25v) benefaktiboa dugu:

(a) “asi zirean Silberogaz joazen musikoak / ain dulzemente jaiten *euren* instrumentuak” (7r), “lau urtebete *euren* gabakin / zeure oiñetan naukazu” (7r), “Onela, bada, Doristeok eta Sirenak egin even *euren* biajea” (12r).

(b) “(...) al baneza, dakidan legez / *euroen* arteko apetitoa” (12v), “Ni kaso naxala baldin badago / *euroen* artera tentazioa” (26v).

(c) “ekustenean *eueren* oneretxiak remediorik emaita ez eustela, ia eozen *eueren* esperanza galdurik” (14v), “geratu zitezen espantu eta tristeza andiaz, *nork bere even* oneretxia galduagaiti” (13r)⁵.

(d) “Remedioa bila zitezen, / *eurentzat* gora kostarik” (25v).

– Sintaxiari dagokionez, izenaren eskumako lekuan duen erabilera, adjektiboaren kokagune berbera, aipagarri dateke. Ohar bedi behin baino sarriago ageri dela *ama* senidetasun eremuko izenaren edota *biotz* (10r), *begi*, *laztan* afektibitate gradu handiko izenen alboan. Eskuma posizio horrek adierazkortasun berezia markatzen duela deritzagu, gizakiarentzat bere-bere den zerbaitekiko lotura adierazten duena. Hala:

(a) “Ilabete ez egian / *ama berearen* ugatzetan” (43r), “Silberoren partierea / oi, aditurik Silbiak, / damu andia, oi, eben artu / *biotz berean* menetan” (19r).

(b) “*Ama enea* seme бага / zuk ifiniko al dozu?” (7r), “*Ama enea* seme bageaz / oi, zuk zer probetxu dozu?” (7r), “*Laztan enea*” (50r), “liburuan bere jarri oi naiz, / *begi neureok* lausotu” (50r).

⁵ *euen* / *eben* hori *edun* aditzaren 3. perts. pl. adizkia ere izan daiteke, baina kontestuan posesibo izatea hobeto dator.

1.4. *Nor bere* izenordain konplexua

Gaur egun hiztun gehienon senean guztiz lexikalizatuak den *norbera*, *norbere* konposatuon atzean osagai biko egitura dugu, Lazarragaren eta tradizio zaharreko beste izkribu askotan garden ikusten dena. *Nor* izenordain anaforikoa lehen osagaitzat, gehienetan *nork* kasu ergatiboan, eta gutxiagotan *nor* eta *nori* beste kasu oinarrizkoetan ageri dela; eta bigarren osagaitzat *bere* posesiboa. Gure izkribuan *nork bere* erakoak dira erabilerarik gehienak (a); bat bada horraitino *nor bere* eredukoa (b), eta kasu baten behintzat *bere* posesiboa mugatzaileaz eta deklinaturik darabil (c). Lazarragak maiztasunez dakar:

(a) “zan lastima andia *nork bere* biotzean eukan tristezea ekusten” (9r), “eta artu even *nork bere* armak” (13r), “*nork bere* even onerretxia galduagaiti” (13r), “zeinzuk bertati *nork bere* espiluak eta ezpatak arturik, joan zirean” (13v), “asko dabilta / kureldo desterradurik, / *nork bere* etse / apaindurean urtenik” (49r), “Oi, ez kargadu / *nork bere* konzenziarik” (49r).

(b) “el zitezkeano, nun *nor bere* ugazaba banakin” (12r).

(c) “*nork bereari* / oi, ezin kobru emunik” (48v).

2. MUGATZAILE MARKAK

2.1. Mugatzaile oinarrizkoaren erabilera berezi bat edo beste

-*a* mugatzaile bakuna dela eta, aipagarri da *ama* izenari dautsala duen erabilera, *amea* itxurapean, gizaki baten ama izendatzeko kontestuan:

“Badanik bere / *amea* baleu ain onradu” (44r).

Zenbait kasutan gertatzen diren -*aa*- bokal bituak dira, bestalde, gogoragarri. Mogeekin Markinaldeko idazle klasikoetan guztiz sustraitua dagoen joera. Bokal bituok *jan* eta *izan* bezalako aditzen aditzizenetan ere ageri dira (*jaaten*, *jaaterako*, *izaaten*), baina mugatzailearekin zerikusia duten kontestuetan direla-eta, -*a* erro-bokalaz amaitzen diren izenei -*an* inesibo atzizkia darraien hitzak aipatu behar dira: *arkaan* (41v), *plazaan* (15v), *domekaan* (21r).

-*ak* mugatzaile plurala izenaren amaierako -*a* erro-bokalaz bat egitean, bokale bituak dirau. Hala *berbaak* (6r), *donzeillaak* (6v), *erropaak* (7v), *ke-xaak* (39r), *aita-amaak* (39v), *kapaak* (41r), *kanpaak* (48v). Baita ere, izenari soziatibo pluraleko -*akaz* atzizkia dautsanean ere: *korazaakaz* (27r).

2.2. Mugatzaile hurbilez

Beste edozein izkribu zaharrek baino gardenago eskaintzen digu testu honek mugatzaile hurbilen erabilera zaharra. Itxurari dagokionez, bi gradu bereizten dira sing.ean, *-au* eta *-ori*. Hala dagokio sartaldeko euskara zaharriari orokorrean. Denboran hurrekoa den Zumarragaren gutunean ere (1537) partiketa bera dugu. Pluralerako, ostera, itxura bakarra dugu, euskara zahar osoan bezala: *-ok*.

Bizkaiera literario klasikoak neurri apalean baino ez zuen onetsi mugatzaile hurbil sing.eko atzizkion erabilera idazia; esan nahi da, *-a* mugatzaile orokorraren atzizki-izaera bera ematea, hitz-erroari erantsita idatzirik. Gehienetan *-ia* beti ez esatearren-, sing. mugatzaile hurbiloi erakusleen trataera formala eman zien idazleek, izenetik bereiz idatzirik.

Klasikotzat ditugun autoreenak baino aurreragoko idatzietan askoz ageriago dago marka hauen atzizki-izaera. Demagun, Kapanaga, Barrutia, Mikoleta eta halakoetan. Izan ere, horietan zein XVI-XVII. mendeetako idatzi zaharagoetan, idazleek ahozkoatasuna zuten erreferente nagusi; ahozkoaren senaz gidatzen ziren gehiago hitzak eta hitz-atalak bereiz edo loturik idazteko orduan. Horrexegatik behar bada, arazo barik idazten zituzketen /Iz + *-au/-ori/* ereduko segidak. Hau berau da Lazarragaren kasua ere. Are gehiago, beste sartaldeko ezin testu zaharretan baino ugariagoak dira mugatzaile hurbildun kontestuok.

– Lehen graduko mug. sing. *-au* da, eta hitzak *-a* bokala duenean amaieran, *-eau* aldaketa jasaten du orohar, bigarrenean *-eori* egiten duen legetxe (*llageau, peneau, denporeorrek*), gaur egungo bizkaieraren bidetik (*alabea, alabeau, alabeori*)⁶. Bestetarikorik ere bada baten bat, ostera: *frutaau* (41v). Absolutiborako dugun *-au* formaz gainera (a), beste kasuetan *-oni*, *-onen*, *-onentzat* atzizkiak ditugu (b):

(a) “baneroean etxurea / txitez guztiau galdurik” (27r), “oi, neure biotz amorosoau / idogi zidan bertati” (27r), “orain ez neuke errazorarik / izenau borraetea; / ez geiago gazta-zaroau / ain laster antzietea” (42v), “Azaiteau galdu lerait / ardura usatzakeak; / ene aginok ezin jan leie / aragi errebagea; / estomaguau galdu leiket / bianda probatzakeak.” (42v).

Beste kasu batzuetan:

(b) “Pobreonentzat, oi, gatzik asko, / aberatsonek doblea.” (42r), “flakezeonen bildur nax baia, / oi ta, gura dot azartu” (18r), “ene des-

⁶ Bizkaiera zaharreko beste lekukotasun batzuk: “indazu espillua ta artaziak, dagidān ondo imini bizarrāu” (Mikoleta); “ni bekatariāu” (Kapanaga).

ditxeonen kausea” (12v), “Bosteun dukat kosta jakan / baroconi balentia” (50r).

– Bigarren graduko mug. sing. *-ori* dugu, gradu bereko erakuslearen itxura eta eremu semantiko bera hartzen dituela. Absolutiboan *-ori* (a) eta beste kasu batzuetan *-orrek*, *-orri*, *-orrendako*, *-orregaz*, *-orrez* formak ditugu (b):

(a) “Itsasoori tinta balidi, / zeru zabala liburu” (18r), “Bieak alkar ekusterako / oltzori dabe iregi” (25v), “errealori kastaetarren, / ez atzeratu pausorik” (28v), “Emazteori ona ezpadau, / etsean errierte” (42r).

(b) “Denporeorrek emun badagi, / ez egon tentatzakarik” (28v), “Ari jakea egin orduko, / alabeorrek gonea” (42r), “donzelleari Lora ereitzan, / morroeorri Don Martin” (25r), “daukazun gatxorrendako remedio emaiten baxe” (13r), “zuek esan dozun artzaiorregaz egon nax” (10v), “etsaiorrez / topa nindin gradaetan” (43r).

– Pluralean *-ok* / *-oek* forma-bikoiztasuna dugu, abs. eta erg. kasuetan (a). *Berba* hitzaz, kasurako, *berbaok* eta *berbaoek* formak ditugu. Ondoko sin-tagman: *kausaoek guztiok* (11v), batean *-oek* eta bestean *-ok* dugu. Berdin ondoko honetan: *Platikaonetan lauok eozela* (12v). Beste honetan ere *ezpataoek* / *ezpataok* elkarrengandik hur:

“eta ark emun deust *ezpataoek* zuendako (...) eta an el zatezenean, zeuren *ezpataok* eskuetan artuta belauriko jarri” (13v).

Lehen eredukoak zein bigarrenekoak ugariak dira testuan zehar: batetik *biziok* (13r) erakoak; bestetik *lau amadoreok* (8v), *berbaoek esaten* (11r) erakoak. Aurretiaz pentsa zitekeen mugatzaile-erakusleen arteko gradu-diferentzia bat egon zitekeela euren artean, baina kontestuak konparatu ondoren ez dirudi hala denik. Ziurrago dirudi esatea forma bikoiztasun soila dela testuan.

Beste kasuetarako ditugun atzizkien artean, besteak beste, gen. *-oen*: *bioen*, *euroen*, *animaloen*, benef. *-oendako*: *bizioendako* (14v), soz. *-okaz* eta inoiz *-okin* ere: *berbaokaz* (11v), *biziokaz* (14v), *amoreokin* (24r), inst. *-oz*: *begioz* (30v), ines. *-oetan*: *platikaonetan*. Aipagarri da *begioz* inst. plurala, sartalde-hizkeretan duen bakantasanagatik (b):

(a) “Oi, Sirena, zeinaen *begioek* direan nortegaz konparaduak” (12r), “Itxi neutsan *berbaxoek* / neure laztanaz eginik” (21v), “*berbaoek* esaten asi [zan]” (2v).

(b) “*Bioen* kontra” (14r), “A gizon doloraduak eta kruelak zeuren *bizioendako*” (14v), “esan dozun *berbaokaz*” (11v), “klaru dakutsun azkero *biziokaz* baino gutxiagogaz pagatuko ez dozuna” (14v), “zeru-

ko jaunak, oi, ez liela / amoreokin ditxarik” (24r), “gogaberatu zakez-kedala / begioz nakutsunean” (30v).

Mugatzaile hurbilon agerrera inguruneak direla-ta, gogora dezagun zenbait kontestutan ziurrago edo erregularrago gertatzen dela, beste batzuetan baino:

a) Maiztasun ugaria du, mugatzaile hurbildun IS hori aurrean izenlagunaz orniturik dagoen kontestuetan, eta berariaz hurkotasuna adierazten duen *ene*, *zure* edo era horretako posesiboren batez lagundurik dagoenetan askoz erregularrago da. Lehen graduko mugatzaileari (-*au*) *ene/neure* posesiboek laguntzen diote batipat (a); bigarrenekoari (-*ori*), ez bakarrik *zure* | *zuen* gradu berekoak, ezpada baita batzuetan lehen graduko *ene*-k (b). Baina -*ok* pluralekoa, gradu biak hartzen baititu, batagaz zein besteagaz erabilia da (c):

(a) “*ene* peneau onein andia dan azkero” (12r), “*Ene fedean* andia da ta, / ondo tratadu nagizu” (16v), “*Neure* peneau esan bear dot, / ezin neonge ixilik” (20v), “Osatu *ene* llageau nai badozu” (31v), “*neure* buruau ez nei ondo / andratan konfiatzea.” (42v).

(b) “*Ene* laztanorrek, / arren esazu” (17v).

(c) “*Neure* begiok goratu neben” (20v), “Oi, *zuen* gatzok / utra dakust nik klaruan” (45v), “*ene* gau egunok / guziok dolorez” (20v).

b) Gradu hurbileko mugatzaileen agerrerak 1. edo 2. pertsonak barru dituzten aditz erlatiboekin ere lotura estua ohi du. Maiz azaltzen dira izkribu zaharretan ingurune horretan; batzuetan aditzori lotua den ondoko izenari atxikirik, sing. zein pluralean (a); beste batzuetan aditz erlatibo horri zuzen datxikala (b):

(a) “ez nator zuei gatzik egiten, daukazun gatzorrendako remedio emaiten baxe” (13r), “Enzun dozun pregoeau / egienean aditu” (14r).

(b) “Aditurik, bada, Silberok leen esan *dogunau*” (6v), “itxi egiozu orrekin kureldo trataetan *zabenorri*” (12r), “zegaiti zabiltzen on ez *deretxunorren* atzean galdurik” (12v).

c) Izenordain bat edo adizki bat dagoenean perpausan 1. edo 2. pertsona barruan duena, horren eraginpeko izenak erraz beregantzen du mug. hurbila. Hala:

“*Nik* ain on *baneu bozau* kantatzeko” (33r).

d) Beste askotan ez dugu inguru lagungaririk mug. hurbilaren agerrera erraztuko duenik; gogozko hurbiltasuna dugu soilik. Hala, esaterako, 2gn graduko *jaunorrek* edo *itsasoorrek* azpian luketen balioa dateke: hor hurrean, gugandik hur dagoen jauna / itsasoa:

“Nik bere, *jaunorrek* ala gurarik, / probadu dot mina eta dulzea” (11r), “*itsasoorrek* orbe guztiaz / beti zagie laudatu” (18r).

– Mugatzaile hurbil bali semantikoa dela-ta, aipagarri deritza *-au* 1. graduko mugatzaileak zenbaitetan betetzen duen *ni* pertsona-izenordainaren lekuari; hau da, hitzun edo poetaren ‘nitasuna’ ordezkatzeko du *-au* daroan IS-ak: batzuetan izen edo adjektibo bati dautsala (a), bestetan aditz jokatu erlatiboazko batez (b):

(a) “Ditxabageau joan nintzan / ezer baga eskuetan” (43r), “Aide baga bakox nago, / desdixadeau, eresketan” (43v), “Desdixadua ditxaetan / beti narabil galdurik” (46v). “andra ditxabageau barriz / sei ilekoaz maiaetan” (43r).

(b) “Ama librea ganik jaio nintzan / ditxarrik ez *nebenau*, alabea” (27v).

Pluraleko *-ok* daroan IS-ak ere bide beretik 1. edo 2. pertsonak ordezkatzeko dituzte inoiz. Hala:

“ipirdietan deiokeozu / erraz mun *biok* alkarri” (47v).

Gehientsuenetan, ostera, mugatzaile hurbilok 3. pertsona hurbilei dagozkie: *-au* 1. gradukoa ia beti gradu bereko erakusleari graduari (a), naiz beste batzuetan 2. gradu batetik hurrago dagoela dirudien (b):

(a) “Esperanzeau galdu jat” (6v), “Ori gerriko dageau eta / biotzeraino indazu” (7v).

(b) “Akabadurik, bada, Silberok bere musikeau, ainbat atsegin artu euen jardinean eozenak” (7v), “Enzun dozun pregoeau / egienean aditu, / Doridok eta Silberok bere / oi, ezin eben” (14r).

Era berean bigarren graduko *-ori* horrek gradu bereko erakuslearen eremu bera hartzen du gehienetan:

“Sar ezak, Peru, / gabineteoi geldirik / bere lekuan” (46v).

Mugatzaile hurbil bidez, hurbiltasun fisikoa barik, gogozko hurbiltze soila markatzen da maiz. Eta sartaldeko testu zaharretan holako inguruneetako erabilerak ugariak dira zinez. Hala:

“galai galantok ara doaz / egiten erromeria” (44v).

2.3. Erakuslean morfologiaz

Honez esan daitekeenik gehiena, goratxoago mugatzaileem atalean azaldua dago jada. Batzuen eta besteen bereizkuntza ere ez da erraza gehiene-

tan, izenarekin batera ageri direnean behinik behin. Hala ere, erakusletzat jo ditugun markak aipatuko ditugu ondoren:

- *Au* eta *ori* dira 1. eta 2. pertsona singularrei dagozkien formak. Hala:

“Zegaiti monjea inox eztago / baize *au* edo *ori* pensaetan” (27v).

- Lehen graduaren forma deklinatuak *on-* erroaz eraikiak dira: erg. *onek*, dat. *oni*, gen. *onen*, soz. *onegaz*, instr. *onezaz*, mot. *onegati*, ines. *onetan*, adl. *onetara*, abl. *onetarik*:

“*Onegati*, serbitzen bada, / arren, bear deust parkatu” (10r), “esku delikaduokaz karta *oni* eranz[u...]” (1r), “ark emun deust ezpa-taoek zuendako, espilu *onegaz* batetan” (13v), “espilu *onetara* begira zaozela” (13v), “defendidu al bagagizu emun gura deutsaien tormentu *onetarik*” (14v), “Forma *onetan* berba negion” (19v), “oi, *onegaiti* itxaden begi / dozenaxe bat urtean” (42v), “zegaiti *onek* sustenduko nau / egunean da gabeen” (42v), “*onen* biotzau nai bekizu / efini seiñaladurik” (46r), “Esperanzeak bizi oi [nau] / erri *onezaz* atean” (50r).

- Bigarrenaren forma deklinatuak, *orr-* erroaz eraikiak, ondokoak dira beste batzuen artean: dat. *orri* (1r), gen. *orren*, mot. *orregati* ines. *orretan* (41r), abl. *orretarik*.

“laster osatu zatezkeala daukazun gaxaesun *orretarik*” (11r), “*Orregati*, Doristeo, zoaz nora ta nundi gura dozun” (11v), “efiniko dot *orren* biotza / zureaz orapildurik” (46r).

- Hirugarren pertsona singularrera darabilen *oa* itxurak aipu berezia merezi du. Lazarragaren testuan behin baino sarriago ageri da eta, beraz, lekukotasun garbia frogatzen du. Itxura honek, gaur egun Deba eta Urola ibarretako alde batzuetan indarrean den (*h*)*aura* forma gogorarazten digu, edota Ultzama aldeko (*h*)*ore* (*hora*). Atal bigaz osaturiko erakusle indartua da nolahi ere: -*o* hurbila + -*a* neutroa. Lekukotasunak ondokoak dira gutxienez:

“ezin pensadu even nogaiti edo nork emait[e]n eben musika *oa*” (7r), “Ribera artan neska *oa* / bakotzik nekusenean, / razonamentu dulce *oa* / forma artan da alakoa / ain laster egidanean” (27v), “Aren aoti berba *oa* / negiane aditu” (35v).

- Hala ere *a* itxura soila da sarriroen darabilena, sartalde euskaran 3. grado forma orokorra den berbera:

“gurago dot Silberori on deretxadala il, eze ez *a* antzituta bizi izan” (12v), “Kontentuago dagoalako *a* / jaaten dabela basallore” (28r), “ene biotzau *a* serbitzeko / jarri zan obligadurik” (30r), “arren osatu nengiala, / *a* litzan gero medikua” (39v).

Beste kasuetarako ditugun forma nagusiak *ar-* oinaz eraikiak dira batzuk: erg. *ark*, dat. *ari*, gen. *aen / aren* (a). Baina gen. kasurako badugu *aen* ere. Toki-denbora kasuetan ere berdintsu: ines. *artan*, toki-gen. *artako*, ablatiboan hiru forma dira: *artati*, *artarik* eta *arerean(ik)*. Hirugarren honek, dena dela, adberbio balioa du izkribuan: ‘handik’, ez erakuslea arruntarena (b):

(a) “*ark* ilte’naben gero ni” (16v), “*ark* ala merezidurik” (24v), “*aen* gainean txoria” (17r), “*Aen* izena letra onetan / dago relatadurik” (24v), “donzeilleorrek ez *ari*” (26r), “Ni *aren* minez ilte’ninzan da / a beti alegererik” (27v).

(b) “espilu *artan* mira zatez” (15vbis), “ortu *artako* frutea” (15v), “Bide *artati* iramo badot / zure kalera gezirik” (41v), “oi, orain ez letorket ondo / *arereanik* jastea” (42v), “puntu *artarik* bertarean / ilundu zidin zerua” (47v), “jagi gindizen *arerean*” (47v).

A erakusleorren deklinieran deigarriak dira, sartalde hizkera izanik, /-re + -ga-/ atzizki-artizkien bakuntzaz eraikitako aldaeren presentzia: soz. *aregaz* (36r), kaus. *aregaiti* (41r), ines. *aregan*, adl. *aregana* erakoak, hain zuzen (a). Baina ugariak dira era berean /a- + -ga-/, tarteko genitibo barik eraikitako ereduak, sartalde euskararen ereduko forma nagusiak funtsean: soz. *agaz*, ines. *agan* (43v), adl. *agana* (b):

(a) “Libertadea *aregaz* dago” (30r), “nik *aregaiti* ez nei emun / txoritxo baten lumea” (15vbis), “Neure begiok banegian / *aregan* laster fixadu” (27v), “oi, bada bere nik *aregana* / asko dot borondaterik” (27v).

(b) “baia bardin irabaziko / ez dozu *agaz* honrarik” (47r), “*Agan* kontenpla badezazu” (15vbis), “*agana* begiraturik” (46r).

– Pluraleko formek duten punturik aipagarriena da euren erroak, bizkaiera zaharretik baino erdi aldeko hizkeretatik hurrago egotea. Erakusleerrook hauek dira: *o-*, *ori-* eta *a-*. Deklinaturiko forma guztien atzean errook daude: *oek*, *oriek*, *aek*.

– *Oek* dugu lehen pertsonako plurala, mugatzailearen itxura berberekoa. Hori dela-ta zail egiten da mugatzaile-erakusleoneko arteko bereizkuntza zehazten, Lazarragarenean legez beste testu zaharretan. Idazkera ere ez da izaten testu zaharretan bereizpide argia, zeren banan edo bereiz idatzirik idazlearen arabera ageri baitira maiz. Kontestuari jaramonez eta esangurak zehatz argitu ondoren jo daiteke bateko edo bestekotzat. Hala gertatzen da *oek* honekin ere; zeren izenaren eskuman ageri denean, loturik ageri da gehienbat, -*ok* legetxe. Izenaren eskuman ageri diren gehienetan, dena dela, mugatzaile hurbilen antz gehiago dute, erakusleena baino. Bakarreango kontestuetan, ostera, ez da erakusleak direnen dudarik.

Absolutiboaz ostean beste honako kasuak darabiltza bereziki: gen. *oen*, benef. *oentzat*, soz. *oekin*, ines. *oetan*:

“*oentzat* kastigua dan eta / *besteoentzat* exenplu” (14r), “*oen* artean jasarri zidin / amoremina dulzerik” (25r), “Jaio zitezen maiatz ilean, / amorioa *oekin*” (25v), “zegaiti laster orrako gara / *oetan* akabadurik” (24v).

- Bigarren graduko plurala *oriek* dugu, behin baino sarriago lekukotua. Beste kasuetan, soz. *oriegaz*:

“Esan ze egidazu berba *oriek*” (12v), “Estal ezazu *oriegaz* / zeure nezesidadea” (15vbis).

- Hirugarren graduko pluralean aipagarri dira: abs. *aeke*, dat. *ai*, gen. *aen*, abl. *aetati*:

“eta *ai* itxita joan zidin bere etsera” (7v), “*aeke* baga onik ez badozu?” (23r), “*Aen* obraen, oi ta, bildur nax” (23r), “*aetati* paseatzeko / eztot ardura lagunik” (41r).

– Erakusle adberbioen artean honakoak aipa daitezke.

- Toki eremuko forma deklinatuak *on-* eta *orr-* oinen gainean eraikiak dira. Aipagarri dira *onerean* (hemendik) eta *orrerean* –behin *orrean* darabil, *orrerean* laburturik, dirudienez–, biak *-rean* ablatibo zaharraz eraikiak. *Onerean* denbora esparruan sarriago erabilia da, *onerean aurrera* (12v) legezkoetan:

(a) “Ni *onerean* joateko / kausea, oi ta, zara zu” (9r), “*onerean* irugarren egunean aterako ditu buruak edetera” (13v).

(b) “Jagi zatez, Silbero, *orrean*” (12r), “eta inka ezazu *orrerean*” (14v).

Lehen graduan inesiborako *eben* zaharraren lekukotasun adierazgarria dugu testuan, gaur nagusi den (*h*)*emen* formaren lekuan, eta honen ablatiboko forma ere bai, *ebetik*, gaur egun Arratia aldean-eta bizirik dirauen (*h*)*emetik* formaren hurrekoa. Bigarren gradurako *or* itxura dugu:

(a) “zegaiti naberen zuregaz batu, / lindea, *eben* bakarrik” (19v), “Jaunaren graziaz *eben* jarria” (26v), “Biar-etziak urrean datoz; / arren, betorke *ebetik*” (21r).

(b) “*or* ase eben bere bigardoa” (28v).

Hirugarren gradurako: ines. *an* (a), adl. *ara* eta *araxe* markatua (b), abl. *arean*, eta *areantxe* honen ald. markatua ere bai, *arean* + *-txe* osagaiduna, gaur egungo *handikexe* edo *hartatikexe* adieraziko lukeena (c). *Arean*, toki balioaz gainera, denbora balioaz ere sarri darabil *arean da* egitura barruan, gaur egun-

go *harik eta* aurrekariaren leku berean (d). Ez dugu *handi(k)* ereduko adibide bakarra ere ikusi, ostera:

(a) “*an* gura dot neuronek emun / zuk agindu deustazun sobrea” (3r), “ez zatean mirakuru *an* ila” (6r), “Txakurtxo bat *an* eldu zan” (43v).

(b) “ala ene lagunau eta ni goaz *ara*” (19v), “etorten da *araxe* ezta-kit nundi” (33r).

(c) “Silbiak urten eben *arean*” (6r), “ez erorteko *area[n]*” (42r), “Peru Errotzek asko dauko / etsean seme galantik; / *areantxe* bat oi al badozu, / bila ze zatez besterik” (47v).

(d) “uste eben eze eskuartean ilgo litzakala, *arean da* beregan biurtu zeitean artean” (6r).

- Moduzkoetan *-la* atzizkidun eratorriak darabiltza, eta ez *-lan* erakoak; hala bada, bizkai euskarako joera nagusia barik, gainerako hizkeretako berberak: *onela*, *horrela*, *ala*, eta adnominalak: *onelako*, *orrelako* erakoak, baina ez *onelango*, *orrelango*, *alango* erakorik. *Ala* balio generikoaz erabilia da, ingurune batzuetan hurbiltasun-inguruneari ere dagokiola:

(a) “Nik au *onela* esaterako / asko da errazoarik” (41r), “*Orrela* dan azkero, goazen guztiok batera” (10v).

(b) “Eta *ala* egin eben” (9v), “Obligazioz bete ninduzun, / guztiok *ala* gurarik” (23v).

(c) “Zegaiti emaiten deustazu / zuk *onelako* bizia?” (15vbis), “zebesat *orrelakorik*” (20r), “finjidu neben ez nebela / nik *alakorik* aditu” (25v).

3. PARTITIBOA

- Partitibo-atzizkiaren erabilera dela-eta puntu bati jarri diogu arreta: zenbatzailedun IS-etan txertatu ohi diren kasuei, bereziki *asko* zenbatzaileaz. Partitibodun kontestuen gehiengoa ezezkako edo ezeztapen kutsuko perpau-sek osatzen duten arren, hauen sintaxia ohikoa eta orokorra da; eta testuko inguruneak ere euskarari orokortasunari dagozkionak dira.

Asko + *-ik* atzizkia duten sintagmak *eskerrik asko* ereduari dagozkionak dira funtsean. Jakina da, bestalde, gaur egungo hizkeran guztiz bakan bihurtu direla era horretako espresabideok, eta azken mendeotan ere formula finkoe-

tan ez bada nekez edo mehatz erabiliak izan direla. Hala ere ezin esan hizkera bizitik guztiz aldendu direnik, eta hain gutxi sartaldeko euskarari. Ekialdeko bizkaieran, hiztunak adinekoek, euskaldun huts-huts direnek, etxeko dituzte oraindik ere holako egiturak, zenbatazunari infantizazioa eman nahi zaionean behintzat.

Lazarragaren testura bihurturik eta haren erabilerari oharturik, deigarriena da, batetik egituron maiztasuna, eta bestetik, hizkera poetikoan baliabide adierazkor gisa duen onurakortasuna.

Sintaxi alderditik *asko* horrek IS-rekiko hartzen duen lekua da aipagarri:

- Izen edo izen multzoaren aurrean ageri da orohar (a). Batzuetan, *asko izan* / *asko edun* aditz multzoa dugunean, adizkia erdian dela darabil: / *asko izan* + IS + *-ik* / egituran (b). Beste aditz batzuekin batera ere bai batzuetan: *asko egon*, *asko euki* legezko zenb. + aditz segidekin batera (c):

(a) “Jaun zerukoai emaiten jagot / oi *asko* gerzari^{rik}” (41r), “ekusi neben / *asko* donzella galanti^{rik}” (15r), “Nik aregaiti iragaro dot / munduan *asko* penari^{rik}” (27v), “Onetan zuri egiten jatzu / oi, *asko* agrabior^{rik}” (30r), “oi ta, dabela / egiten *asko* negarri^{rik}” (48r), “konta dezadan / dolorez *asko* koitari^{rik}” (48r).

(b) “*asko* da errazoari^{rik}” (41r1), “*asko* bear da gauzari^{rik}” (41v1), “au egiteko zugan *asko da* / dama galanta kausari^{rik}” (41r2), “Amore poderoso, Jauna, / *asko* deusut eskerri^{rik}” (27r), “aregana / *asko* dot borondateri^{rik}” (27v), “dama bat serbietako / *asko* bear da gauzari^{rik}” (27v).

(c) “Doristeok Silbiagati *asko* dauko mini^{rik}” (8v), “Nunberebaita *asko* dago / enetako doloreri^{rik}” (36r), “Peru Errotzek *asko* dauko / etsean seme galanti^{rik}” (47v), “Juduak barriz / *asko* eukan negarri^{rik}” (46v), “*Asko* daroae / juduok alariduri^{rik}” (46v), “Izurridunak / *asko* eukaen llanturi^{rik}” (48v).

- /IS + *-ik* + *asko*/ egitura, ‘eskerri^{rik} asko’ formula dugu agian ugariena zenbatzailearekiko kontestuetan. Hala orrialde gutxiren barruan, ondokook ditugu: *begi ederri^{rik} asko* (15r), *donzella flordelisari^{rik} asko* (15r), *justari^{rik} asko* (15v), *zaldun^{rik} asko* (15v), *penari^{rik} asko* (16v), *galteri^{rik} asko* (20v).

- Aditzagazko komunztadura singularrez burutzen da ia beti, nahiz semantika aldetik aniztasun balioa gorde ia beti. Baina gehienetan aditzean plural-hizkirik ez denez, ezin da zehaztu komunztadura kontu hau. Baina orokorrean Lazarragaren erabilerak aditzagazko akordioan sintaxi zaharra islatzen du, gerora komunztadura zalantzakorragea nagusitu bada ere hizkuntzan, behin singularrez, behin pluralez, testuen arabera. Hala, ondoko

pasarteotan, *penarik asko* eta *damarik asko* horien atzean aniztasun semantikoak ezagun da:

“Zu ekustera etortearren, / (...) / *penarik asko* iragaro dot / egunean da gabean” (16v), “erraz daizu ekusi / donzeilla linda *damarik asko* / munduan parebagarik.” (15r).

Ondoko pasarte bietan oraindik garbiago islatzen da morfologia singularra eta zentzun pluralaren arteko kontrastea, *-rik asko* eta *guztiak* bata bestearen ondoren ageri direlarik:

“Zaldunik *asko* ekusi neben, / *guztiak* oriz janzirik” (15v), “ekusi neben, / (...) / *donzella flordelisarik asko* / *guztiak* gorritz janzirik” (15r).

Partitibodun IS-a gorabehera, aditza pluralez dugu kasu bakan batzuetan, hala ere:

“*Eozen begi ederrik asko*” (15r).

- Zenbatzaile numeralak duen IS baten barruan erabilirik dakusagu behin, herri-kopla itxura osoa duen pasarte honen barruan. Numeralekiko erabilera hau ez da ohikoa, zehaztugabeekin *-asko*, *gitxi*, *larregi*, *nahikoa...*– ohi den legez behintzat. Adib.:

“Gure ortuan madari, / *gurazaurik* amabi” (17r).

- Zenbatzailerik agerian ez den perpausetan ere ezaguna da partitiboaren erabilera, eta sintagmari horrek *beste* lagun daroanean are gehiago. Hala:

“*limosneraok saltzaen dabe* / lekuan *beste frutarik*”

- Adjektibo graduatua, *-en* atzizkiduna, daroan sintagma barruan ere gaur ere ohi duen presentzia bera du partitiboak. Hala:

“*lorik gozoenagaz eozen orduan*” (13r), “Estandarterik *onaena*” (26v).

- Ezeztapen kontestuetan *ez* eta *ezin* markadun perpausetan ageri da bati-pat, baina bestelako batzuetan ere bai.

“*Ezin faltarik* neidio / *nik on deretxadanari*” (16v).

- Galde perpausetako lekukotasunak askoz urriagoak dira. Baditu batzuk horraitino. Batzuk bai-ez erako galderetan (a). Badira nor-zer erako perpausetan ere, beti ere azpian ezeztapena datzala (b):

(a) “Mutil gose on *gurarik* / mundu guztian ez ete da?” (36r).

(b) “Neurau baino nor ete da / ederrago *donzellarik?*” (36r).

- Mende perpausai dagokienez, baldintzazkoak dira maizenik darabiltzanak, *ba-* aurrizkidun aditzak diren perpausetan ageri direnak. Baldintza-aditzak edozein denboratan ageri dira –testuan orainean (a) eta alegiazkoan (b), berdin egiteeran zein aoristoan (c). Baldintzarena barik, helburu zentzua gorde ohi duten *-ko* futuro aspektodun partizipioaz eraikiekin ere bai (d):

(a) “Ezer trabajurik / oi ta, *badozu*, / (...) / arren esazu” (17v), “nik klaruago banesakezu, / oi, *baneu* lizenziarik” (20r), “Krueldaderik baderakutso, / beoke beti tristerik” (28r), “zeure biotza bera bekizu, / *badozu* piedaderik” (30r), “Balía bekit, / oi, *badot* adiskiderik” (48r).

(b) “lenaengo ta gero juzgadu / *bestegan* balitz tatxarik” (41r).

(c) “Koitarik esan, oi, *badegio*, / ifini esporzadurik” (28r).

(d) “Jentilonbre, oi ta, bear dau, / izango *badau* ditxarik” (28r).

Formula itxura dute egitura honekin eraikiriko esamodu batzuk; berebiziki hitz neurtuz behin baino sarriago darabilen *badozu* borondaterik delakoak:

“oi, apeadu bear neuke / *badozu* borondaterik” (21r).

4. ZENBATZE-EGITURA BATZUEN INGURUAN

4.1. *Bat* eta *batzu* zenbaileak

- *Bat* zenbatzailearen ines. sing. forma dela-ta, aipagarri da *batean* eta *baten* bietara darabilela; eredu biak neurri paretsuan; agian *baten* ugariago. Inoiz ageri da *batetan* forma mugagabea ere, *-gaz* *batetan* egitura barruan:

“ark emun deust ezpataoek zuendako, espilu onegaz *batetan*” (13r).

Beste kasuetako formak ohikoak dira: erg. *errege batek* (19r), dat. *beste bati* (14v), soz. gehienbat *bategaz* eta behin *batekin*: *dama bategaz* (19v), *katea fortitz batekin* (27r); inst. *batez*, ugari erabilia dena: *seme batez* (43r); ablatiboan *baterean* (6r) eta *bateti* (15r) biak ditugu, eta azkenez adl. *baterra* (6v).

Mugatzailedun formak askoz urriagoak dira, baina gutxienez *bata* eta *bataz* formak erabiliak dira:

“esan eben artzai *batak*” (10v), “*Bataz* esango neuke” (39r).

- Pluraleko forma orokorra, absolutiboan, *batzu* dugu, hegoaldeko tradizio osoan *batzuk* / *batzuek* erak nagusi diren bitartean (a). Forma deklinaturik, bi eratakoak baino ez ditugu idoro: *batzuen* (7r, 43v), *batzugaz* (26r). Aditzagazko komunztadura pluralaz egiten dute, ohi den bidetik. Deklinatze-atzizkiak *-zu* horren gainean erantsiak direla esan daiteke, modu mugagabeaz beraz, eta ez *-e(k)* plura-hizkiaren gainean, erdi-sartaldeetan nagusi den bidetik (b). Zenbait kasutan bakarrik erabilia da sintagman (c):

(a) “Nik esango ditudan berbaok / [izan]go dira gutxi *batzu*” (4v), “artu eben artzaiaen jazteko *batzu*” (9v), “enzun even aen alde-rutz kantaetaz etozela gizon *batzu*” (14v).

(b) “loak artu zituan arbole fresko *batzuen* azpian” (13r), “urre-gorritzko letra *batzugaz* / egoan eskrebidurik” (15r), “dama *batzuen* oiñetara / oi, belauriko etzinik” (15v).

(c) “ain ondo toleztadurik, / nola *batzuen* saboianea” (41r), “*batzugaz* konsultadurik” (43v).

4.2. Bana, banak

Bana zenbatzailea mugatzaile pluralaz orniturik eta deklinaturik darabil, izen baten ondoan. Hala bada, determinatzailea barik, adjektibo kategoria du hor. Beronen esangura ere 'bereizi, aparteko, banako' dateke, gazt. 'propio, diferente', eta ez 'bakoitzak bat', gaur egun hegoaldeko tradizioan nagusi dena. Erdi eta sartaldeko tradizioetan ezaguna da erabiler hori, nahiz urria den, ekialdekoa delarik lekukotzarik trinkoena⁷:

“arean da Silbero egoan lekuan el zitezkeano, nun nor bere uga-zaba *banakin*” (12r).

Mugatzaile bako erabilerak ere badira, *bana* zenbatzailearen oinarrizko sintaxia islatzen dutenak, gaur egun ere nagusi den joeraren bidetik:

“euren eskuetan ekarten arko *bana* fletxa zorrotzakaz armaturik” (13r), “Etxe *banatan* bizi zirean, / zeñak eusten alkarri” (25r).

⁷ Mogel beragan *bana* eta *bina* zenbatzaile banakariaren adjektibo erabilerak badira. Hala BANA: “*zelan dagozan Jangoikuagan iru Persona banaak*” (DC 65). Eta BINA: “*Obe da Zerura juan begi ta oin bakotzakaz, binaakaz Infermura baiño*” (CO 67). IKus gehiago: OEH/DGV delakoan *bana* hitzaren 2. adieran (III, 822).

4.3. Beste

Beste zenbatzaile bereziaren adjektibo erabilera da hemen aparteko arretaz begiz jo duguna. *Beste* hitzaren sintaxi oinarrizkoa *bere* posesiboaren edota izenlagunen beretsua bada ere, hau da, izen sintagma barruan doanean honen ezker lekuan agertzea, hemen aipagarri dena eskuma posizioko erabilera da; hau da, adjektibo kategorian, izenaren eskuman kokaturik eta mugatzailea berari datxikala. Sintaxi horren azterren zaharrak dira *erbeste* izenean edo *Etxebeste* toki-izenean ditugunak, besteak beste. Horiez ostean bizkaiera zaharreko testuetan ere badugu noiz edo noiz sintaxi horren lekukotasunik. Hala Erdi Aro berandukoa den Mondragoeren erretzearen gaineko eresieren bertsio baten gutxienez:

“Oin arro[o]k zi[tu]an luma / Ozaetako jaun gazteak. / Laster baten igaro zan / uraz *alde besteaf[n]*”. (TAV 3.1.7.)

Lazarragak sintaxi honen lekukotasun oparoa damaigu; behin ez eze, gutxienez hiru aldiz, guganaino heldu den testuan. Testuko adibideok hiznurtuzko partean ageri dira. Horrek, poetaren aldetik beren-beregiko edo jakinaren gaineko erabilera bilatua dela pentsarazten digu: bertsogilea lizentzia horrezaz baliatu izango zen, *beste* hitzaren posizio bikoitzaz alegia, eta ahalpaldia borobil egiteko erara etorri zaionean izenaren eskuma-lekuan ipintzeari hobetsi dio. Osterantzekoetan ohiko aurre-toki horretan edota (tokatzen denean) bakarrik darabil.

Esku batean / *esku bestean* sintaxi paraleloa da alde horretatik argitasuna damaiguna:

“esku batean nekarrela / kalzaidu utsez errodela, / (...) / Banekarren *esku bestean* / listra onezko dardo” (27r).

Beste erabilera biak hauek dira:

“bizi *beste* bat artuko dozu / kondiziook kentzaiteko” (22v).

“Oi, ez kargadu / nork bere konzenziarik, / Jaunak ez digun / oita, gaztigu *besterik*” (49r).

– Izenordain kategoriakoa euskara osoan hedaturik dagoen erabilera dugu, Lazarragarenean ere lekukotza garbia duena. Hala darabiltza *bestek*, *besteri* (9r), *besteren* (28v), *bestegan* (41r), *bestegana* (32v):

“sekula *bestek*, oi, eztagian / artu atrebimenturik” (30r), “zeure borondateori *bestegan* daukazuna legez” (11v), “Silbiak, oi ta, daktusun gero / on deretxana *besteri*?” (12r), “sekula, barriz, zebesakeo / *besteren* abantajarik” (28v), “Jaunorrek ez dindala ondasunik, / gogoa baldin badot *bestegana*” (32r).

– Euskara osoan ohi denez, izen multzo barruan ezkerreko posizioa, izen nagusiaren ezkerrekoa gorde ohi du hemen ere *beste* hitzak; hau da, izenlagun posizioa. Hori da erabilera nagusia Lazarragarenean ere. Izenordain bezala ere maiz dakusagu, mugatzaile barik deklinaturik: *besteri*, *besteren*, *bestegan*, *bestegana*.

Izen multzoaren aurrean, hau mugatzaileaz (a) edo partitiboaz (b) dagoela:

(a) “osteango *beste* berbaen artean egion erregutu” (6r).

(b) “negar baxe *beste* gauzarik egite[n] ez evela” (13r), “Amorea ta biok gabiltza, / ez dogu *beste* lagunik” (24v).

Sintagma bakarrik osatzen duela, mugatzaileaz (a), zenbatzaileaz (b), multzokariaz (c) edo *-ik* partitiboaz (d):

“Sirena bere ainbeste dabil / *besteok* legez galdurik” (8v), “oentzat kastigua dan eta / *besteoentzat* exenplu” (14r).

“*Beste* *bategaz* ezkondu arren / uste badozu oba dala” (22v), “Egun batean leukala / *beste batzugaz* kabildu” (26r), “Uste badozu iñon ez dala / a ta zu lako *beste bi*” (47v).

“*beste guztietan* estimadua” (26v).

“ez deraustae *besterik* aterako, / salbo bai zaituala amaetan” (40v).

“laster batean, oi, lirazuket / *beste mundurako* bidea” (42v).

4.4. *Anetx* zenbatzailea, ekialdeko anitz-en soinkide

Lekukotasun guztiz bitxia sartaldean, ekiadeko *anitz* forma nagusiaren sartaldeko aldaera dugu *anetx*, bere fonetikari ere antz ematen zaionez. Sartalde euskaran honen lekukotasunik nekez aurki daiteke, baina bai erdikoak, gipuzkeran hain zuzen. *OEH*-k ondo ohartzen duen bezala (II, 123), Britainako kantuan eta Otxoa Arin-en *dotrinan* bada adibide bana.⁸

Sintaxia ere ekialdekoaren berbera du, izen edo izen-multzoaren aurreko lekuan ageri dela. Behingo lekukotasuna baino ez dugu aurkitu izkribuan:

“Biotzau jo deustazu *anetx* fletxaz” (29r).

⁸ Ochoa Arinek birritan gazt. 'gravemente' euskaraz adierazteko darabil: "Materia gra-bean edo *anitz* inportatzen deban gauzaren baten gaiñean" (*Dotr* 169).

4.5. *Gutxi/gitxi* zenbatzailea

Gutxi itxura darabil guztietan, salbu birritan (11v, 45v).

Lazarragaren erabileran aipagarri zenbatzaile honen kategoria-aniztasuna izan daiteke. Izen multzoaren determinatzaile kategoria du gehien-gehienetan, haren eskuma partean jarriarik edota bakarrik, baina mugatzailearik hartzen ez duela. Hala darabil sarritan: *gutxiagogaz* (14v):

“ze atsegin *gutxi* euren biotzetan artu even” (14v).

“uste *gutxi*en dozun orduan / enegaz bearko dozu” (17r).

“Zure entendimentua bego / *gutxitan* irazarrik” (30v).

Baina bakan-bereziagoak dira izen eta adjektibo kategoriaz ageri deneko kasuak, izkribuan dakusagun bezala. Esanguraz, batzuetan ‘apur, pizka’ kantitate-izenen balioa du, hala *bat* zenbatzailea, nola *-a* darraionean. Gogora bedi Lazarragaren sintaxi hau bizkaiera zaharreko zein beste tradizio zaharretako testu batzuetan ere erraz on egiten dela. Hala RS, Kapanaga edo Mikoletarenean.⁹ Bizkaiera modernoan ere indarrean dira, izen zein adjektibo legez, *gitxia* erako sintaxiak. Lazarragarenean izen erabilerak honetarikoak dira:

“Begiok irekazu *gutxi baten*” (14v), “Apea nindin zaldirean / *gutxi bat* apartadurik” (29r).

Eta adjektibo kategoriaren lekukotza garbiak ere baditu, 'txiki, apur' balioaz; batzuetan izenaren eskuman eta mugatzaileaz lagundurik, lapurtera tradizioan zein sartaldeko tradizio zaharrean ohikoa den erara¹⁰ (a); beste batzuetan bakarrik baina beti ere mugatzaileaz edo *bat* zenbatzaileaz lagundurik (b):

“Ainbat sentidu eben bada Silberok Sirenak agaz egin eben kaso *gutxia*” (5r), “Sekula *gauza gutxiagaiti* / zebegi sentimenturik” (28v).

“Nik esango ditudan berbaok / [izan]go dira *gutxi* batzu” (4v).

4.6. *Asko* zenbatzailea

Gorago aipatua dugu /*asko* + *-ik*/ egiturarekikoa.

⁹ Cf. RS: "Larrak larritzen / *gitxiak* arbintzen" (260), "*Gitxia gitxia* urrin lioake" (350); Kap: "eregin da *gitxi bat*" (145). Mik.: "baia *gitxi bat* gaixorik" (13).

¹⁰ Bizkaiera zaharrean, adib.: RS: "*gauza gitxietara* gertu" (306).

Kasu honetan aipagarri da, besteak beste, toki-denbora kasuetan *-tan* ereduaz baliatzen dela denbora esparruan, eta *ez -an* ereduaz, sartalde euskaran nagusiro dakusagun legez. Lazarragaren erabileran, *askotan* ereduaz ez dago gertaera baten maiztasun edo bidertasunari atxikirik, nahiz honetarako ere darabilen (a); jarraiko denbora-tartea adierazteko ere berdin balio du:

(a) "Egun *askotan* bearko dozu / zeure aldean medikua" (6v),
"Egun *askotan* nik egin nagon / modu askotan erregua" (39v).

(b) "iraungo baleu denpora *askotan*, litzateala parte niri eriotzea laster emaiteko" (11v), "Urte *askotan* bizi banax" (47r).

Deklinaturik ageri dituen forma nagusiak dira: abs. *asko*, erg. *askok*, gen. *askoren*, soz. *askogaz*, inst. *askoz* dira berariaz (a), eta toki-denborazkoetan *askotan* inesiboa. *Askoz* forma instrumentala, gaur egun graduatzaile legez erabili ohi dena, adizlagun funtzio garbiaz dakusagu izkribuan, gerora nagusitu den *-gaz* sozietiboa barik (b):

(a) "ama *askoren* seme *askogaz* / bear dau batu urtean" (42r).

(b) "zerren eozen / larrin guztiak beterik / persona *askoz*" (48v),
"dei egin deutso umillik, / umillik eta / lisonja *askoz* beterik" (49v).

4.7. *On(e)inbat, orr(e)inbat, ainbat zenbatzaileak*

Zenbatzaile zehaztugabeen artean, konparatiboen sailean, *ainbat*, *oneinbat* eta *orrinbat* (orreinbat) hirurak darabiltza. Hirugarren graduako generikoa ugari, baina 1. eta 2. graduakoak urriago: birritan lehenengoa, behin bigarrena.

Orrinbat, 'horrenbat' arauzkoaren aldaera; (*h*)*orreinbat* > (*h*)*orrinbat* bokal-berdinketaz eraikia da. Tradizio idatzian diren erabilerarik gehienak ekialdekoak badira ere, erdialdekoek ere multzo adierazgarria osatzen dute.¹¹ Sartaldeko testu idatzietan bakanago ageri da. J.A. Mogeleg gipuzkeraz erabiltzea, baina ez bizkaieraz, datu erakusgarria da, gure ustez: idazle hark gipuzkerazkotzat jotzen zuen gehiago zenbatzaile hori. Baina sartaldean ere ezaguna eta erabilia da izan; ahoz ere bai: *horrenbat* eta *horrenbaten* bakarrik erabilirik entzuten dira, apreziazio-kopuru bat adierazteko, 'hortxe-hortxe, hori gutxi gora behera' balioaz.¹² Lazarragarenean adibide bakarra idoro dugu:

¹¹ Izenaren eskuinean erabilirik corpusean badira, lapurterakoez ate, Mendiburu, Kardaberaz eta Lardizabalen adibideak ere (*OEH* XIII, 624). Cf. J. A. Mogel: "Baña euskal errietan ezdago *orrenbat* gari" (*CV* 201).

¹² "Hamar hogereko edo horrenbat balio dau" erako esaldiak entzuten dira Gernika aldean.

"-Oi, nox zenbiltzen / orrinbat gatxez munduan?" (45r).

Oneinbat edo honen aldaera zabalagoak, *honenbat* eta *hunenbat*, hobetu lekukotuak dira tradizioan, eta Lazarragarenean berdin. Ekialdeko tradizioan, lapurteran esaterako, guztiz ugaria da *hunenbat*; erdialdeko idatzietan ere edozenbat aldiz aurki dezakegu (*h*)*onenbat*. Sartaldea da inolaz ere urriena, honen azterren bila joan ezker. Lazarragak oparo darabi, eta sintaxi bigaz: izen aurrean (a) eta bakarrean (b). Gehienetan absolutuan, behin soziationean: *oneinbategaz*:

(a) "Bada, *oneinbat* gatx ire kausaz etorri dan azkero, zegaiti ezton lotsarik berba oriek esaten gure aurrean?" (12v), "Udabarri guztiz alegerea, / maiatzeko lora ederraena, / ze indazu beti *oneinbat* pena" (14r), "*oneinbat* bider eriotzea / zerren emaiten didazu?" (16v).

(b) "Konkluitzen dot nik *oneinbategaz*: / inor izango bada abisadu, / bear dau forzoso enamoradu" (11v), "Konkluitzen dot *oneinbategaz*, / salba prolixidadea" (15vbis).

Ainbat hirugarren gradurako darabilen zenbatzaile konparatiboa oparo ageri da izkribuan, baina ez hain justu aurreko bien barruti sintaktikora mugaturik, askoz zabalago baino. Sintaxiaren, semantikaren zein testu-inguruneen ikuspuntutik, marka honek dibertsitate askoz handiagoa hartzen du barruan.

Egitura banakarien lehen marka legez ageri da maizenik:

a) Mende-egitura kontsetiboetan erabilirik ageri da maiztasun handiz; hain zuzen ere: *ainbat ... eze* egitura banakatuan, aurreko perpausa nagusiaren zenbatzaile hanpatzaile gisa (a). Hala, izkribuaren lehen 10 orrialdeen barruan sei biderrez (5r, 5v, 6r, 7v, 8r, 10r). Ondorio-perpausetako marka legez, *eze* konjuntzioa darabil nagusiro, *ze* behin edo behin (b), eta *-la* atzizkia ere badugu inoiz (c):

(a) "*Ainbat* sentidu eben bada Silberok Sirenak agaz egin eben kaso gutxia, *eze* etorri zan eriotzako puntura" (5r).

(b) "*ainbat* dakust lazeria, *ze* / eraetan jat fedea" (42r).

(c) "*ainbat* sartu jate zure bildur, / beretxat naxala gaxto lag[un]." (14r).

b) Kantitate-konparazioko perpausetan ere egitura banakarian ageri da, *zeinbat ... ainbat ...* delakoan:

"*zeinbat* dodan probadu gutxiago, / *ainbat* iruditzen jat dulzeago" (28r).

c) Kualitate-konparazioko perpausetan ere bai, *ainbat ... zein ...* egitura barruan:

"nik izan banau sufritzeko / gatxoek biotzau *ainbat* zabala, / *zein* dodan buruan bena liberala (...) trobatzeko" (39r).

Determinatzaile kategorian gutxieneta ageri da, eta sarriago izen zenbakaitze bati laguntzen (*denpora*, *deskansu*) (a). Toki-denbora kasuko izenaz behin darabil eta berean *-an* atzizkiak markaturik, ez *-tan* mugagabe ohikoaz (b):

(a) “Bada sei batek artzaiten badau / kantu single batez *ainbat deskansu*” (14v), “zegaiti dozun Euskel erria / *ainbat bentajaz* dotadu” (18r), “*Ainbat tenpora* dan azkero, / zabiltzadela galdurik” (47v).

(b) “Zegaiti ezin antzitu neidi *ainbat denporan* on deretxadan gauzea” (11v).

4.8. Oro multzokaria

Hitz bakun eta autonomo legez sintagman erabili izatea, ez da ugaria, ezta ohikoa ere, bizkaiera zaharrean. Lekukotasunik sendoenak errefrau zaharretakoak dira, RS-en edo Isasti-ren bildumakoak. Ez gaitu asko harritu behar arkaismorik zaharrenak atsotizetan azaltzeak, zeren inprimatu izan ziren baino lehenagokoak, edo askoz lehenagokoak izan ohi dira gehienetan. Atsotitzek maiz, erabiliak diren baino aldi zaharragoetako hizkuntza-egitura finkatuak islatzen dituzte. Eta hala dirudi oro zenbatzailearen sartaldeko erabilerak ere.¹³

Lazarragarenean bildumak damaigun lekukotasuna, bere laburrean esan-guratsua da gutzitz. Eskaintzen dizkigun lekukotasun biak IS barrukoak dire-lako: *oro* izenaren ondoan determinatzaile gisa erabilirik ageri da, eta ez bizkaiera zaharrean nagusi den izenordain erabileran.

Komuntzadura pluralean gauzatzen du. Hitz honen bakantasanaren frogagarri, gogora bedi hitz neurtuz ageri dela kasu bietan eta konposizio berean, gainera. Adibide bakanok dakartzan poema horrek, hizkeraren aldetik, gipuzkera-ezaugarri garbiak ditu, bestalde. Adibide bata kasu absolutuan dugu (a) eta bestea denbora zentzuko kasu inesibokoa da (b).

(a) “kontu estua emango digozu / zeruetako Jaunari, / munduan diran *podere oro* / eskuan dituanari” (50v),

(b) “ura dakustan *ordu orotan* / [...]rtzean ur det irria.” (50v)

¹³ Determinatzaile legez, izen multzoaren eskuman, honako errefracuetan dugu: “Motel *orok itz nai. Todos tartamudos quierê hablar.*” (RS 170), “Oian *orotan* otso bana. En cada bosque, su lobo.” (Isasti 69. TAV 180).

Hainbat gehiago dira izen sintagman bakarrik ageri denekoak, izenordain gisa. Aposizio funtzioan dugu, esaterako: “Guiçonoc *oro* buru balz, / andra duztioic buru çuri” (RS 245).

4.9. “Arka garia”

Gai edo ‘eduki’ baten kopurua neurtzeko gai hori barruan duen ontzi edo ‘edukitzailearen’ izena darabilen sintagma egitura guztiz ezaguna da euskaran; harako ‘botila ardoa’ ereduakoa, alegia. Halakoetarikoa dugu izkribuan behin idatzi duen *arka garirik* partitiboduna. Izan ere, garia kaxan edo arkan gordeko zen orduan eta geroago ere:

“Asko erre da / barruan joia galantik, / bai geiago / oi, asko *arka garirik*” (48v).

5. GRADUATZAILE-MARKA ZENBAIT

5.1. *-xe* eta *-txo* gutxitzaileak

Lehen gradu-atzizki horrek *-xe* eta *-txe* hartzen ditu antzinatik, eta gaurko sartaldeko euskaran batipat erakusle eta hauetarik eratorritako kategoriak intentsitatez markatzeko erabiltzen da: *hau-xe*, *hemen-txe*, *hon-txe* / *orain-txe*, *holaxe*, *halaxe* eta kidekoetan.

Lazarragaren sisteman zabal dabil atzizki hau graduatzaile gutxitzaile gisa, baina hitz-kategoria oinarritzkoekin hain zuzen: izen, adjektibo, izenordain, adizki edo zenbatzaile direla. Hala: *gutxi-xe*, *gei-xe-ago*. Lazarragaren lekukotasunak erakusten digu, aldi baten zabalera handiagoa zuela atzizki horrek, gutxitzaile bezala, euskaran, eta sartaldean bereziki. Ez bakarrik lurraldez, baita ere hitz-kategoriekiko. Landuchioren hiztegian, oster, *-txo* dugu atzizki gutxitzaile orokorra. Hala izango zen Gasteizen eta Araba lautadaren sartaldean, dirudienez. Ez ekialderantz, Salbaterarrantz.

Gaur egungo sartaldeko euskaran, eta tradizio klasiko idatzian bertan ere, bakan eta eremu murriztuan baino ez da erabilia atzizki hau; berba jakin batzuekin bakarrik gainera, eta jada eratorri lexikalizatu modura dirau gehiago atzizki graduatzaile bizi legez baino. Berehala datozkigu gogora Arratia eta Nerbioi ibarretan oraindik dirauten *aitaxe* eta *amaxe* legezko hitzak edo beste banaka batzuk.¹⁴ Baina erdi eta ekialdeko hizkeretan haren emankorrako ger-

¹⁴ Orozko aldean, gaur egun ere, eta Arrati aldean ere neurri baten, ‘aitaginarreba’ eta ‘amaginarreba’ *aitaxe* eta *amaxe* hitzen bidez izendatzen dira.

Ezaguna da, bestetik, Arratian baturiko herri-kantu baten ageri diren *lapikotxe* eta *lapikoto* hitzen arteko kontraposizioa, bata txikia, bestea handia. Hara koplaren honen ahozko bertsio bat: “abadearen *lapikotxea* / txikiña baia gozua; / ikazginaren *lapikotoa* / handia baia arrua”.

tatu da atzizkia. Sartaldeko euskaran *-txo/-txu* marka nagusitu da denborarekin funtzio horretarako, *-xe* baztertuz.

Lazarragaren sisteman, orduko eremuan eta aldian, marka gutxitzaile indartsua zen *-xe/-txe*. Eta aldi hartan eta beranduago ere (XVI-XVII. mendeetan) zabal erabilia sartaldean ere. Hala dirudi aldi horietako izkribu bakanei erreparatu ezkeru.¹⁵ Ondoko kategoriekin dakusagu:

(a) Izen kategoriekin, *berbaxe*, *bobedaxe*, *erreguxe*, *etxekoxe*, *gauzaxe*, *presentexe*, *suspirioxe*, *urtetxe*, legezko izenekin:

“Itxi neutsan *berbaxeok* / neure laztanaz eginik” (21v), “*Gauzaxe* batek, oi ta, nauko / andiro enojadurik” (23v), “zazpigarren ilabetean / *urtexe* onau sarturik” (27r), “*Presentexeak* emun begio / gauza usaiz beterik” (28r), “*partieta[n]* danean, barriz, / zuzpirioxe garratz pi” (28r), “*etsekoxeok* beti barrez” (36r), “*Ameak* leike azep-tadu / *erreguxeau*” (44v), “*bobedaxeok* / itxi dau eurok bakarrik” (48v).

(b) Adjektiboekin eta eurotarik etorririko adberbio kategoriekin:

“*klaruxeago* berba egizu” (20r).

(c) Izenordain kategoriekin, gorago ikusi dugun bezala: *neurtxeau*, *geurtxeok*, *bertxeak*.¹⁶

“Oi, arrezkero Jaun zerukoak / *bertxeak* daki bakarrik” (20v).

(d) Zenbatzaile batzuekin, hala nola *geixeago* (a), eta zenbatze eremu bereko osteango kategoriekin, izenekin, hala nola *dozenaxe* kasurako (b). Poesia baten idatzi duen *bieac* zenbatzailearen atzean *bixeak* izkutatzen ote den gaude, segurua ez da baina (c):

(a) “*Geixeago* esango neben, / eugi baneu astirik” (24v).

(b) “oi, onegaiti itxaden begi / *dozenaxe* bat” (42r).

(c) “*Bi[x]eak* alkar ekusterako / oltzori dabe iregi” (25v).

(e) Adizlagun eta adberbio kategoriekin, hala nola *goitixeago*, *ebentxe* edota *areantxe*:

“*Goitixeago* ekusi neben, / beste alderutz eginik” (15r), “*areantxe*” (47v).

¹⁵ Izen bereziei atxikirik ere badugu. Hala eresi zahar baten: “oña txipi, orpo laster, *Abendanoxa*” (Errodrigo Zarateko, 18). Eta eresi berean, zenbatzaile bati: “—Arren, echo-su orain osaba, *bixeok* justa gaitean” (ibid. 19).

¹⁶ Izenordain indartuak, *nitxeau* bezalakoak, Ataungo hizkeran oraindik ere indarrean dira.

(f) Aditz kategoriekin ere badarabil inoiz, adizki jokatu erlatibozkoaz hain zuzen: *dakidantxeau* idatzi du gaur egun esango genukeen *dakidantxo(a)* adizkiaren lekuan:

“Lizenzia arren indazu, / badozu borondaterik, / *dakidantxeau* esaterako” (23v).

(g) Pertsona-izenekiko erabilera ere, bakana den arren, ez da saihestekoa. Bizkaiera zaharrean ezagunak dira *Abendañoxe*, *Totaxe* eta beste batzuk.¹⁷ Izkribuan *Peru Errotxe* delakoa dugu gutxienez:

“Peru Errotxek asko dauko” (47v).

Baina *-txo* graduatzailea agian indartsuago dugu atzizki gutxitzaile beza-la orduko aldian eta toki horretan. Lekukotasunei begiratzea baino ez dago. Behin edo behin pertsona-izenekin: *Katelinatxo*, *Peritxo* (a), baita batez ere izen arruntekin eta askotarikoekin: *begitxo*, *biboratxo*, *damatxo*, *donzeillatxo* (20v), *eskutxo* (27v), *itogintxo* (25v), *larrosatxo* (31v), *mutiltxo* (14v), *sagutxo*, *seitxo*, *tortolatxo* (30v), *txakurtxo* (43v), *txoritxo*, *ziudadetxo* erakoekin (b); baita ere *laztantxo*, *lindatxo* legezko adjektiboekin (c). Goian aipatu dugun *presentexe* horrekin batera *presentetxo* (23r) ere badarabil:

(a) “*Katelinatxo*, nola nagoan / amoreminez gaxorik” (20r), “*Peritxo* y Anton” (26v).

(b) “zegaiti ango *larrosatxoak* / eztau piedaderik” (15v), “*txoritxo* baten lumea” (15v) “*Linda damatxoa*” (17v), “*Txoriak* eta *tortolatxoak*” (18r), “*donzeillatxoak*” (23v), “*ziudadetxo* txikir batean” (24r), “*Sugatxo* / *biboratxo* bat bularretan” (29r), “zeure *begitxo* linda biok” (30v), “Estali dau *seitxoa* / arrai batzuen kontxaetan” (43r), “*Lotu* deutso *eskutxoa*” (43v).

(c) “Ene *laztantxo* linda damea” (14v), “ene *lindatxo* maitea” (16v).

5.2. *Duin* konparazio-marka

Sartalde euskaran ezaguna da, erabiliegia ez bada ere. Inguruneei begiratu, bezain edo beste konparazio-hitzen balio eta ingurune beretsuz erabili izan da *duin*.

¹⁷ Hala: RS: “*Totakoxe* mirabe prestu, / gauza gitxietara gertu” (306). Iburguen-Cachopin kronikan, Julen Arriolabengoak oraintsu egin duen tesian ageriratzen duenez, badira honetariko gehiago: *Andreaxe*, *Joantxe*, *Mariatxea*, *-txu* / *-txo* edo *-kote* atzizkidunekin batera.

Bizkaiera tradizio klasikoan ezaguna genuen, maiztasunez erabilia izan ez bada ere, corpus politaren jabe baitzen bizkaiera ekialdeko autoreetan (Mogeldarrak, Astarloa, Frai Bartolome).¹⁸ Lazarragaren erabilerak askoz atzerago garamatza konparazio-marka honen lekukotza literarioan, XVI. mendera. Dugun adibidea kalitate-konparazio eremukoa da:

“sekula jaio ez da amoradurik / ni *duin* firmerik ene lekuan” (32r).

Jakina da, ostera, bizkai klasikoetan kantitate-eremuan ohi darabiltela sarriago, *beste*, *adinbat* edo *asko*-ren antzera, Mogelen ondoko adibideak on egiten duenez: “*Ez eban egin salbazinoerako duin edo asko zan penitenziarik*” (CO 2).

5.3. *Onein, orrein, ain*

Gradu hurbileko graduatzaile biek lekukotza garrantzitsua dute izkribuan; testu klasikoetan, eta sartaldekoetan berariaz, ohi duten baino portzentaia trinkoagoaz. Lehen graduko *onein* birritan irakurri dugu, batean adjektiboaz (a), bestean adberbioaz (b). Bigarren graduko *orrein* markak –tradizio klasikoan ere ohi den eran– erabiler trinkoagoa du, gutxienez bost bat aldiz ageri baita, batzuetan adjektiboaz (c), besteetan adberbioaz (d):

(a) ene peneau *onein* andia dan azkero (12r).

(b) “bardin gura naben azkero, / *onein* kureldo tratadu” (11r).

(c) “biotzoi nola dozu[n] *orrein* kurela” (31v), “nola dozu / enetzat *orrein* gogor muraillea?” (31v), “*Orrein* kruel izaten enegana / nik merezidu ez dot zureganik” (32r).

(d) “Cupido, nola dozu *orrein* gaxki / zeure matraz doraduok gobernaetan?” (8v), “eta itxi egiozu *orrein* kureldo trataetan zabeno-ri” (12r).

Eta, espero zitekeenez, ugariena (*h*)*ain* neutroa dugu. Baina honek, gora-go ikusi dugun *ainbat* markaren kasuan legez, sintaxi egitura ugariagoak onartzen ditu. Batetik, goiko biak legetxe, adjektibo-adberbio kategorien graduatzaile zereginetan ageri da, baina berezitasun batekin: /izen + adjektibo/ erako izen multzoei loturik ageri da maiztasun handiz; aurreko biek in neke-zago gertatzen dena eta testuan ikusi ez duguna. Hala:

¹⁸ Bakoitzaren adibide bana emango dugu. J.A. Mogel: “ezta pekatu izango biar duin urun eralgitia” (*Doc. Crist.* 120). Pedro Astarloa: “Etzan aurkituten Jaungoikuaren beian, bera pagetako duin zan ondasunik” (UD, I, 70-71). Frai Bartolome: “Ta ez dauka inok zetan pensau, kristinaubak bakijeala salbetako duina dotrina” (Ikasik I, 8).

(a) “akordadu eben joaten artzai baten figuran erri aetarik, ez *ain bizi lazeradua* iragaitarren” (9r).

(b) “*ain andia* dan azkero” (1r), “zuri deutsudan amorioa *ain firmea* dan azkero” (11v).

Baina egitura banakarien lehen marka modura ohi darabil sarriroen, batez ere *ain ... eze* egituran, ondoriozko mende-perpau sak eraikiaz:

“arpea iramo eben *ain furia* andiaz, *eze* utra pedazu asko egin zan” (5r), “urten eben *ain* laster Silbero egoan lekurean, eze ez zan bastadu inorbere biurket[e]a” (6r).

“Eta *ain* da nik deutsadan amorioa andia, eze neure erriari itxirik nator aen eske” (10v).

6. KONKLUSIO GISA

Artikulu honetan Lazarragaren hizkeraren gaineko azterketa izen sintagma eremuko gramatika-kategoria jakin batzuetara mugatu dut, behar zen neurriari kontu eginda. Hemen aipu ditudanez eurez ere gehiago eta sakonago iker zitekeen. Baina, dena den, hautatu ditudan gramatika-formak zehatz eta tstuaren osoari begiratuta aztertzen saiatu naiz. Erreferentzia puntu gisa, ahaztu barik izan ditut garaiko eta ondoko mendeetako testuetako erabilerak, eta arreta bereziaz sartalde-hizkeretakoak zirenak. Aztertu dugun eremu edo barrutian ere daturik deigarrienak jo ditugu begiz, ohikoak eta orokorrak zirenei gainbegirada soila eginez.

Lazarragaren obrak, dena dela, hizkuntzaren aldetiko azterketa sakonagoa eta osoagoa eskatzen du, edozein ertzetatik hartzen dela: lexikoaren, sintaxiaren, morfologiaren zein fonetikaren alderditik. Zenbait azterlan egin dira jadanik, baina egitekoak gehiago dira. Aurreragoan guk geuk ere horretan jarduteko asmoa dugu, geuretzat berariaz interesgarri diren beste puntu berezietan induska. Hala bedi.

7. BIBLIOGRAFIA

- KINTANA, Xabier (2004): “Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan”, *FLV*, 97, 581-595.
- (2005): “Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak”, *Euskera*, 50. znb., 2005-1, 129-159.
- LAKARRA, Joseba Andoni (2004): “Lazarragaren eskuizkribuaren atariko filologia-azterketa”.
In http://www.erabili.com/zer_berri/muienetik/1077268834
- PAGOLA, Rosa Miren (2006): “Lazarragaren eskuzkribua: grafiak, hotsak eta hitzak”, *Oihebart. Cuadernos de Lengua y Literatura*, 21, 539-561.